

HITZ HASIERAKO
BOKALISMOA:
e- hitzen berreraiketa eta
bilakabide diakronikoa

Joseba Lakarra Andriuaren gidaritzapean

Aitor Odriozola Zendoiak eginiko

Gradu Amaierako Lana

Euskal Ikasketetako Gradua

Euskal Herriko Unibertsitatea
Letren Fakultatea
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak
2015-2016 Ikasturtea

AURKIBIDEA

0. SARRERA

1. AITZINEKOAK

1.1. Ikerketaren egoera

1.1.1. Sarrera

1.1.2. Zero hipotesia

1.1.3. Bokal eransketaren hipotesia

1.1.4. Kontsonante erorketaren hipotesia

1.1.3.1. Vennemannen hipotesia

1.1.3.2. Martineten hipotesia

1.1.5. Ondorioak

1.2. Corpora

1.3. Metodologia

1.3.1. Lehen noranzkoa

1.3.1.1. Eratorri/konposatu gardenak kendu

1.3.1.2. Intuizioa erabiliz eginiko sailkapena

1.3.1.3. Bibliografiaren laguntzaz egindako sailkapena

1.3.1.4. Neologismoak

1.3.1.5. Eratorri/konposaturen errekueratzea

1.3.1.6. Iragazkiak

1.3.2. Bigarren noranzkoa

1.3.2.1. *e-* aurrizkidun hitzak

1.3.2.2. *h-* galera erakusten duten hitzak

1.3.2.3. Maileguak

1.3.2.4. Maileguen eratorriak

2. EGUNGO EUSKARATIK AITZINEUSKARARA

2.1. Lehen analisia

2.1.1. Aurkezpena

2.1.2. Eratorri/konposatu gardenak

2.1.3. Intuizioz egindako sailkapena

2.1.4. Bibliografia erabiliz egindako sailkapena

2.1.5. Neologismoak

2.1.6. Etimologia ezezagunekoak

2.1.7. Ezkerralde iluna zuten eratorri/konposatuen errekueratzea

2.1.8. Iragazkiak

2.1.8.1. Iragazki fonotaktikoa

2.1.8.2. Iragazki geografikoa

2.1.9. Iragazkiak pasa dituzten hitzak

2.1.10. Bukaerako emaitzak eta grafikoak

2.2. Lehen analisiaren ondorioak

3. AITZINEUSKARATIK GAUR EGUNERA

3.1. Bigarren analisia

3.1.1. Aurkezpena

3.1.2. Aldaeren kentzea

3.1.3. Eratorri/konposatu eta aldaeren sailkapena

3.1.4. *e*- aurrizkidun hitzak

3.1.5. *h*- galdu dutenak

3.1.6. Maileguak

3.1.6.1. Maileguen lagina

3.1.6.2. Baztertutako maileguak

3.1.6.3. *e*- protetikoa

3.1.6.4. Latineko maileguak

3.1.6.5. Gaztelerakoak

3.1.6.6. Gaskoi-biarneseakoak

3.1.6.7. Frantsesezkoak

3.1.6.8. Beste erromantzetakoak

3.1.6.9. Zalantzazkoak

3.1.6.10. Maileguen grafikoa

3.1.6.11. Grafikoaren analisia

3.1.7. Maileguen eratorri/konposatu eta aldaerak

3.1.8. *e*- guztien jatorrien grafikoak

3.1.9. Grafikoen analisia

3.2. Bigarren analisiaren ondorioak

4. ONDORIOAK

4.1. Ondorioen hitzatzea

5. BIBLIOGRAFIA

0. SARRERA

Euskal gramatika historikoan asko aurreratu da CVC (kontsonante-bokal-kontsonante) Erro Monosilabikoaren Teoria (EMT) proposatu zenetik (Lakarra 1995 hh). Izan ere, harrezkero, erro, aurrizki, atzizki eta etimologia berriak aurkitzeaz gain, Mitxelenak berreraiki zuen aitzineuskara modernoa (AEM) baino zaharrago baten (AEZ) gramatika eta fonologia ezaugarri zenbait azaleratu dira. Paradigma aldaketa hau dela eta, ikertzaile zenbaitek aldarrikatu duen euskarazko hitz hasierako bokal ugaritasuna beste modu batean aztertu beharra bururatu zaigu, teoria berriaren arabera ez bailegoke bokalez hasten zen erro soilik AEZean.

Horregatik, eta Otxandorenaren (2015) GrALaren jarraipen gisa, *e*-z hasi hitzen azterketa burutu da lan honetan. Horrela, hitz hasieran balio morfologikoa eta fonologikoa duten bi bokalak, *i*- eta *e*-, aztertuta geldituko dira. Modu honetan, CVC EMT berresteko beste ekarpen txiki bat bederen egingo dugulakoan gaude. Nahiz eta gainerako hiru bokalak aztertzeke diren oraingo, aurrerapauso handia izango dela uste dugu, espero izatekoa baita gainerako bokaletan ere *i*- eta *e*- fonologikoen antzeko emaitzak izatea, edo konparagarriak behintzat. Gainera, lan honen bitartez bidea zabaldu nahi dugu egunen batean gainerako bokalok ere azter daitezen. Bestalde, euskal hitzen etimologiarako ere ekarpen garrantzitsua izan daitekeela dirudi, adituek aurkitutako etimologia ugari berresteaz gain, hauetako batzuk berri beharra ekar baitezake.

Lanaren norabidea bikoitza izan da: alde batetik, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegian* (= *EH*) *e*- letraz hasten diren 3.300 sarrera ingurutik AEZeko fosilak izateko aukera dutenen portzentaia zenbatekoa den ikusi da, hots, aspaldiko hizkuntz egoera baten ezaugarriak fosilduta gorde ditzaketen hitzena. Beste aldetik, AEZeko fosilak izateko aukerarik ez duten formen analisia eginez, garai historiko edo modernoetan V-ugalketa hori zerk eragin duen azaldu nahi genuke, euskal fonotaktika diakronikoaren esparruan beste pauso bat emanaz.

Lana modu honetan antolatu dugu: lehenik, aditu zenbaitek euskarazko hitz hasierako bokalismoaz esan dutenaren inguruan hausnarketa egiten da, eta ondoren erabilitako corpusaren aurkezpena eta metodologiaren azalpena datoz. Jarraian, lanaren mamia bi noranzkotan antolatu dugu: lehenik, *e*-z hasitako egungo hitzetatik abiatuz, AEko fosilak izateko aukera dutenen bila egindako bidea aurkezten da, bide horretan ateratako emaitzak grafiko eta zenbakien bitartez erakutsiz eta berauen analisia eginez. Bigarrenik, lanaren lehen noranzkoaren bukaeran gelditu zaigun hitz kopuru hain

txikitik egungo ugaritasunera nola iritsi garen aztertzen da. Ugalketa honen kronologia bat egin nahi izan da eta horretarako lehenik hitz eratorri eta konposatuak aztertu dira, ondoren maileguak eta gero hauen eratorriak. Azkenik, lan hau egitean euskal fonotaktika diakronikoaren inguruan atera ditugun ondorioak aurkezten dira eta lanaren amaieran, eranskin gisa, irakurleari interesgarriak gerta dakizkiokeen datuak erakusten.

1. AITZINEKOAK

1.1. Ikerketaren egoera

1.1.1. Sarrera

Euskara historikoan hitz hasieran bokalak aurkitzea ohiko dela dirudi. Sarasolaren *EH* (2007) hartzen badugu, sarreren %33,60a osatzen dute bokalek, 1015 orritatik 341. Hauetatik ia bi heren *a*-k (%11'14, 113 or.) eta *e*-k (%9,86, 100 or.) hartzen dituzte, gainerako hiru bokaletan kopurua nabarmen jaisten delarik: *i*- (%6'10, 62 or.), *o*- (%4'25, 43 or.) eta *u*- (%2'27, 23 or.). Lakarrak (1996) dioenez, Azkueren hiztegiak ere antzeko emaitzak erakusten ditu *a*- eta *e*-rentzat baina *a*-n eta *e*-n, *ha*-z eta *he*-z hasitako hitzak ere biltzen ditu honek eta, beraz, euren portzentaia apur bat jaitsi behar dugu, *a*- (%9-ra) eta *e*- (%6'5-ra).

EMTk proposaturiko CVC erro kanonikoa onartzen badugu, ordea, hau ez bide zen horrela AEZean. *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* aztertuz gero, *e*- eta *i*- gehienak aditz zaharren aurrizkiak direla ikus daiteke. Hauek kenduta, Sarasola eta Azkueren hiztegiko zenbakiak nahiko apaltzen dira. Horregatik, honako galdera hau egin beharko genuke: nola iritsi gara egungo kopuru nabarmen honetara?

Aditu zenbaitek egin du gogoeta hitz hasierako V-ugaritasunaren inguruan, Traskek (1997), euskal hitzen erdiak edo bokalez hasten zirela eta¹, hiru hipotesi garrantzitsuenak bildu zituen fenomeno horri eskainitako kapitulu oso batean.

1.1.2. Zero hipotesia

Hitz hasierako bokalismoa ez dagokio ez bokal eransketari eta ezta C-erorketari ere, baizik eta AEren fonotaktika preferentzia bati².

¹ Bataz bestekoa ateratzeko orduan Mitxelenak AEkoak izateko aukerarik ez zutela esandako hotsak kendu egiten ditu, beraz, portzentaia altuagoa ateratzen zaio.

² Fonotaktika preferentzia horren alde bi argudio ematen ditu: a) *senhar* eta *alhaba* bezalako hitzetako hasperenak AEn bokalarteko CC-ak aurreko silabari egokitzen zitzaizkiola adieraziko luke. b) C-koroariaren palataltzea ondoren datorren V-ak eragin beharrean aurretik dagoenak eragiten du.

1.1.3. Bokal eransketaren hipotesia

Schuchardtek (1893; ap. Trask 1997: 179) hitz hasierako *e-* eta *i-* bokaletan antzinako artikulu baten arrastoak ikusi uste zituen. Bengtsonen (1991, 1993; ap. Trask 1997: 179), ostera, ia hitz hasierako bokal guztiak izenak markatzeko aurrizkiak zirela.

1.1.4. Kontsonante erorketaren hipotesia

1.1.4.1. Vennemannen hipotesia.

Vennemanek (1994; ap. Lakarra 1996: 26) euskal hitzen erdiak baino gehiago bokalez hasten zirela ondorioztatu zuen, gehienak *a-z* (%17). Horretarako, Gorostiaaren (1953) *RS*-en hiztegian oinarritu zen. Esan beharra dago Mitxelenak (1953) iruzkin bat egin ziola lan horri estandar apalenak ere ez zituela betetzen markatuaz. Gainera, *RS*-en hasperen fonemikorik ez zen eta, beraz, *h-* etimologikoen artean (cf. Lakarra 2009, 2015a) egon behar luketen baino *V-* gehiago ikusten dira. Vennemanek hasperena bariazio librean dagoela dio, baina dakigularik ez da hori egiten duen euskal dialektorik. Berak ikusten duen hitz hasierako *V*-ugaritasun hau azaltzeko, *C*-laringal baten erorketa proposatu zuen, indoeuropeak izan zuenaren antzekoa, eta *a*-ren nagusitasuna azaltzeko berriz, laringal hori erori aurretik jasandako $V + h > ah > a$ tinbre aldaketa. Trasken (1997: 180) azaldu bezala, ordea, ez dugu laringalen arrastorik euskaraz, ez hitz hasieran eta ezta beste posizioetan ere³.

1.1.4.2. Martineten hipotesia.

Martinetek (1955) ere *C*-erorketaren alde egiten du eta euskarazko hitz hasierako bokalismoa berak proposatutako kontsonantismoarekin lotzen. Bere iritziz, hitz hasierako herskari *fortis*-ak hasperendunak ziren Mitxelenak berreraikitako *AE* baino garai zaharragoko batean. Hauek ahulduz joango ziren, lehendabizi frikari bilakatuz, ondoren hasperen, eta azkenik desagertuaz, hasperena galdu zuten hizkeretan: $Th > h > \emptyset$ ⁴.

1.1.5. Ondorioak

Ikusten denez, hainbat proposamen izan da hitz hasierako bokalismoaren inguruan baina Martinet eta Trasken azalpenek dirudite egokienak. Lehenak berak proposaturiko kontsonantismoa frogatu nahi du eta ez du argudio gehiegirik ematen hitz hasierako

³ Hualdek (2006) euskal azentuaren bilakaera azaltzeko proposatzen ditu *C*-laringalak.

⁴ *AE*ko hitz hasierako herskariaren galeraren arrastoak badirela dio Trasken (1997): a) Eko *kau*, *kori*, *kura* eta aezkerako *gau*, *gori*, *gura* bezalakoak. b) Itxuraz zeltak diren **karr* bezalako erroek *har* ematea euskaraz. c) Atzizki nahiz izen izan daitezkeen zenbait hitzek herskaria erakustea atzizki bezala jokatzean: *ume* baina *katakume*. d) Iparraldeko akitaniera eta hegoaldekoaren arteko desberdintasunak zenbait hitzetan: *Talsco* vs *Halsco*.

bokalismoaren arrazoiarentzako. Bigarrenak, aldiz, hizkuntz argudio sendoak ematen ditu, bai zero hipotesiaren alde eta baita hitz hasieran eroritako herskariaren arrastoak aurkitzerako orduan ere.

EMTk proposaturiko CVC erro kanonikoa onartzeak, ostera, beste analisi bat eskatzen du gai honen inguruan, AEZean ez baitzen V-z hasten zen errorik teoria honen arabera. Jarraian guk egindako azterketaren nondik norakoak azaltzen dira; corpusaren aurkezpena eta aukeraketaren zergatia datoz lehenik eta erabilitako metodologiaren azalpena ondoren.

1.2. Corpora

Erabilitako corpora Sarasolaren *EHren* (2007) *e-* hizkiaren atala da. Esan gabe doa, beste hiztegi bat erabili bagenu, Azkuerena esaterako, hasierako corpora desberdina zatekeela. Azken honek maileguak saihesteko ahalegin berezia egin zuen; Sarasolak, berriz, eskuzabalago jokutzen du haiekin. Gainera, Azkuek aldaera gehiago jasotzen dituen bitartean, honek euskara batuago bat islatzen du. Azken edizio honetan are gehiago nabari da joera hori, lehenengoan (1996) ez ziren *Hiztegi Batu*ko 2500 bat sarrera berri sartu dituela baitio Sarasolak.

Lanaren helburua, ordea, ez da dialektologia azterketa bat egitea. Azkueren aldaera guztien azterketak lana arrunt konplikatuko luke, gainera, haietariko gehienak Euskara Batu Zaharraren (EBZ) ondorengoak dira eta lanaren helburua euskara zaharragoko bateko formak izan daitezkeenak aurkitzea da.

Bestalde, jakitun gara hiztegi batuago batek gure lanerako oztopoak ere badituela. Esaterako, Sarasolaren hiztegian *ikusi* eta *ibili* onetsi dira *ekusi* eta *ebili*-ren ordeztan, nahiz eta jatorrian *e-* bat izan aditz horiek. Antzeko zerbait gertatzen da *etxura/itxura* bezalako bikoteekin ere. Nahiz eta kasu hau mailegua izan, egon litezke horrelako bikoteak euskal ondare zaharreko hitzetan ere. Dena den, portzentaia oso txikia osatuko lukete corpus osoarekin alderatuz eta azterketaren emaitzetan nabaritutako aldaketa zeharo txikia litzateke.

Sarasolaren hiztegia operatiboagoa da Azkuerena baino: batetik, hitz bakoitzaren 1. agerraldiak eskaintzen dituelako, eta bestetik, erabakiak hartuak dituelako jada, hau da, ez dugu zein aldaera sartu eta zein baztertu erabakitzen ibili behar izan (nahiz haren irizpideak eta gureak —historiko-etimologikoak— beti bat ez etorri). Zalantzarik gabe, egokiena Sarasolaren tamainako euskara zaharreko hiztegi bat izatea litzateke baina tamalez ez da horrelakorik gurean. Beraz, azkenean haren hiztegia erabiltzea hobetsi

dugu, nahiz eta bukaeran emaitza antzekoak esperoko genituzkeen beste edozein hiztegiarekin ere. Hala ere, Azkueren hiztegia ere erabilgarri suertatu zaigu, formen hedadura eta aldaerak eskuratu ahal izateko.

1.3. Metodologia

1.3.1. Lehen noranzkoa

Lanaren lehen helburua AEko fosilak izan daitezkeen *e-z* hasitako hitz soilak (erroak) aurkitzea izan da, hots, aspaldiko hizkuntz egoera baten informazioa egungo euskaran fosildurik gorde duten formak.

Lakarrak (2003) bost sailetan sailkatzen ditu hitzak azterketa etimologikoan: mailegu, aldaera, eratorri/konposatu, fonosinbolismo eta etimologia ezezagunekoak. Azken hauek bakarrik dute fosilak izateko aukera, hau dela eta, talde horretako hitzen bila aritu gara lehenik. Egia esan, bost talde horiek bi lirateke berez: etimologia ezezagunekoak eta etimologia ezezagunekoak. Gradu Amaierako Lan honen bigarren zatia egiteko, ordea, interesgarria zen bost talde hauetan banatzea, bokal ugalketaren azterketa errazago eta hobeto uler baitaiteke horrela. Gainera, sailkapen hau da tradizio aurreratuagoko hizkuntzetako hizkuntzalaritza historikoko adituek (Meilletek indoeuropearaz, adib.) erabili izan dutena.

1.3.1.1. Eratorri eta konposatu gardenen kentzea: Hasi baino lehen, eta gure asmoak diakronikoak izanik, gaur egungo edozein euskal hiztunentzat eratorri edo konposatu gardenak diren hitzak kendu ditugu, hots, egun indarrean dauden atzizkiak dituztenak eta hitz elkartu nabarmenak direnak. Maileguen eratorpen gardenak ere kentzea erabaki dugu: *ebanjelio*, *ebanjelista*, *ebanjelizatu*, *ebanjelizazio* bezalakoetan *ebanjelio* bakarrik utzi dugu. Era berean jentilizioak ere.

1.3.1.2. Intuizioa erabiliz egindako sailkapena: Bigarren fase batean, aitzinean aipaturiko bost taldeetan banatu ditugu zerrendan gelditutako hitzak. Lehen sailkapen hau geure intuizioa erabiliz egin dugu, hau da, bibliografiarik gabe, argi eta garbi talde batean edo bestean sartzen zirenak sailkatu ditugu, beti ere zalantzarik ziren guztiak azkeneko (ezezagunen) taldean sartuz.

1.3.1.3. Bibliografia erabiliz egindako sailkapena: Hirugarren fasean azterketa sakonago bat egin da, honako lanotan oinarrituz: Arbelaitz (1978), Agud eta Tovar (1988-95), Coromines eta Pascual (1980-91), Mitxelena (1961-77), Palay (1932-34), Azkue (1905-06) eta *OEH*. Bibliografia honen laguntzaz, hots, adituen etimologiak kontuan hartuz,

berriro ere sailkapen bera ezarri zaie gelditzen ziren hitzei; hor aurkitzen ez genituen etimologia zenbait Joseba Lakarraren laguntzaz argitu dira.

1.3.1.4. Neologismoak: Etimologiarik gabekoen artean Larramendiren neologismo ugari daudela konturatu gara eta baita Sabino Aranek sortutako zenbait forma ere. Helburua fosilak izan litezkeen hitzak aurkitzea zenez, kendu egin ditugu aipatu hitzok zerrendatik. Era berean, XX. mendearen bigarren erdia baino lehen dokumentatu gabeko hitzak ere kentzea erabaki dugu, ez baitute AEkoak izateko aukerarik.

1.3.1.5. Ezkerralde iluna zuten eratorri konposatuen errekueratzea: Aurreko atalean eratorri/konposatuen atalera bidali ditugun zenbait hitz bosgarren sail honi gehitu behar izan dizkiogu. Hitz horien bigarren zatia identifikatzea lortu dugu baina ezkerraldekoa ez: *erra-tz*, *en-bor*... Nahiz eta eratorri/konposatuak izateko itxura duten, ezkerraldean dagoen zatiak badu AEko fosila izateko aukerarik identifikatzen ez dugun bitartean, beraz, etimologia ezezagunekoaren taldera aldatu ditugu.

1.3.1.6. Iragazkiak: Bi iragazki ezarri zaizkie bosgarren sailean gelditu hitzei forma modernoak kendu asmoz. Lehena geografikoa izan da, hots, ukipenean ez dauden bi euskalkitan gutxienez dokumentatua izatea. Bigarren iragazkia fonologikoa izan da, hots, Mitxelena (1957, 1977) AEMrako berreraikitako sistema fonologikoaren arabera zilegi izatea⁵.

1.3.2. Bigarren noranzkoa

Behin fosilak izan daitezkeen formak aurkituta, lanari 180 gradutako bira eman diogu eta *e-z* hasitako hitzen kopuru hain urritik 3.300tara nola igaro garen aztertzeari ekin diogu.

1.3.2.1. *e-* aurrizkia duten hitzak: Hitz hasierako V-ugalketa kronologikoki aztertzea iruditu zaigu interesgarrien, horregatik, *e-* aurrizkia duten eratorri/konposatuak aztertu ditugu lehenik.

1.3.2.2. *h-* galera erakusten duten hitzak: Bigarrenik hasperen erorketa erakusten duten eratorri/konposatuak aztertu ditugu.

1.3.2.3. Maileguak: Ideala mailegu guztiak aztertzea zen baina 655 aztertzea gehiegizkoa iruditu zaigu mota honetako lan baterako, horregatik, lagin bat aukeratu eta maileguen %20a aztertu dugu. Lehenik modernoak edo azterketarako interesik ez

⁵ /p/, /f/ eta /m/ hotsak ez dira AEMkoak, gainera, diptongoak eta kontsonante bilkurak ezinezkoak ziren eta ez zen leherkaririk hitz bukaeran.

dutenak (eliz-esparrukoak gehienak) kendu ditugu⁶. Gelditzen direnak honela sailkatu ditugu: latineko, gaztelerako, gaskoi-biarneseko, frantseseko eta bestelako erromantzetakoak. Horretarako Guterren (1989) mailegu geruzen azterketa baliagarri suertatu zaigu baina gehienbat Mitxelena (1987), Coromines eta Pascual (1980-91) eta Palay-ren (1932-34) lanak erabili ditugu.

1.3.2.4. Maileguen eratorriak: Azkenik, formarik modernoak aztertu ditugu, hau da, maileguen eratorriak.

2. EGUNGO EUSKARATIK AITZINEUSKARARA

2.1. Lehen analisia

2.1.1. Aurkezpena

Zati honetan *1.3.1* atalean aipatutako metodologia aplikatuz eginiko analisia erakusten da. Bertan, *e-* letraz hasitako gaur egungo 3300 hitz ingurutik AErako fosilak izateko aukera duten formen bila aritu gara, hots, aspaldiko hizkuntz egoera baten ezaugarriak fosildurik gorde dituzten hitzen bila.

2.1.2. Eratorri/konposatu gardenak kentzea

Gaur egungo edozein hiztunentzat eratorri/konposatu gardenak diren hitzak kendu ditugu oso modernoak izan behar baitute. Esan beharra dago oso eskuzabal izan garela hitzak zerrendan mantentzeko orduan, ez baikenuen zerrendatik kendu nahi fosila izan zitekeen formarik. Horregatik, eratorri/konposatu zeharo nabarmenak ezabatu ditugu bakarrik lehen fase honetan: *esanahitsu*, *esanarazi*, *esanbidek...* bezalakoak kendu ditugu baina, *eguzki*, *etxola*, *ertain...* bezalakoak mantendu egin ditugu momentuz. Beraz, 3.300etik 1.105era jaitsi da zerrenda.

2.1.3. Intuizioa erabiliz egindako sailkapena


Gorago (*1.3.1.2.*) esan bezala, bigarren fasean 1.105 hitzok bost taldetan sailkatu ditugu, bibliografiarik erabili gabe, intuizio hutsez. Jarraian, ateratako emaitzak eta beraien grafikoa eskaintzen dira.

- 1) Maileguak: 551
- 2) Aldaerak: 101
- 3) Eratorri/konposatuak: 160
- 4) Fonosinbolismoak: 4

⁶ Forma hauek, itxurak gorabehera, modernoak dira, hots erdiarotan sartuak euskarara, ez lehenago; beraz, ez dira partez baino hizkuntzaren bilakabidearen lekuko.

5) Jatorri ezezagunekoak: 289

1. Grafikoa: lehen sailkapena



2.1.4. Bibliografia erabiliz egindako sailkapena

Hirugarren fasean, 1.3.1.3 atalean aipatutako bibliografia erabiliz eta Lakarrak proposaturiko etimologiaren laguntzaz, sailkapena gehiago findu dugu. Fase honen amaieran 44 hitz bakarrik gelditu zaizkigu etimologiarik gabe.

2.1.5. Neologismoak

Etimologia ezezaguneko 44 hitz horien artean, 18 neologismoak ziren, Larramendirenak gehienak, Aranarenak gutxi batzuk eta XX. mendearen bigarren erditik aurrera azaldutakoak beste batzuk. Lanaren helburua diakronikoa izanik, kendu egin ditugu forma horiek zerrendatik eta eratorri/konposatuen sailera eraman, hauek dira: *egokinde* “filosofia”, *ekadoi* “1. zuzentasuna, 2. epailea”, *ekar* “bakuna, xumea”, *ekarrai* “1. adiurrea, izaera, 2. jaiera, zaletasuna”, *ekauta* “aldundia, diputazioa”, *ekida* “eraikuntza, eraikina”, *erakai* “zioa”, *erasti* “unea”, *ergai* “unea, mementoa”, *erlaitz* “eraikuntza baten goialdeko irtengunea”, *eronde* “gubernua”, *ersukai* “eztul belarra”, *ertohil* “ugari”, *esonde* “aholkua”, *espatu* “xafla egitura duen mea”, *etartu* “onartu”, *etoi* “saltzailea, saldukeria egiten duena” eta *ezkai* “ezpaindunen familiako landarea”.

2.1.6. Etimologia ezezagunekoak

Fase honen amaieran honako 26 formak gelditu dira etimologia ezezaguneko artean: *egia*, *egun*, *egur*, *ehi* “erraza”, *ekandu* “ohitura”, *ekuru* “geldirik”, *eli* “abere taldea”, *enas* “zikin”, *enda* “arraza”, *endai* “pala”, *endalar* “arkasatsa”, *endes* “zikin”, *enpesa* “almidoia”, *enpo* (*egin*) “asetu”, *enura* “zalantza”, *epel*⁷, *eper*, *ergi* “zekor”, *errai* “animalia baten barne organoak”, *erreus* “1. urduria, 2. balio ez duena”, *eskilaso* “hegaztia”, *espa* “1. irrika, 2. kexa, 3. inbidia”, *estolda* “lurpeko erretena edo kanala” “*etzi*, *ezkel* “begi-okor” eta *eztanda*.

2.1.7. Ezkerralde iluna duten eratorri/konposatuak batu

Aurreko fasean, nahiz eta atzizki bat identifikatu ezkerralde iluna zuten hitzak eratorri/konposatu sailean utzi ditugu geroago errekuiperatzeko asmoz. Izan ere, nahiz eta eratorri/konposatu itxura guztia duten, ezkerraldeko elementuak jatorri ezezaguneko izaten jarraitzen du identifikatzen ez dugun bitartean. Beraz, lanaren fase honetan errekuiperatu eta etimologia ezezaguneko taldean sartu ditugu. Hitzok hauek dira: *eltze* “lapikoa”, *eltzun* “makala, zuhaitza”, *enbor*, *erratz*, *ertun* “zorigaiztoko”⁸ *ezkaratz* eta *ezpain*. Zazpi forma hauek aurreko 26ei batu dizkiegu, beraz, 33 hitz gelditu dira etimologia ezezaguneko taldean.

2.1.8. Iragazkiak

Iragazki bi ezarri dizkiegu etimologia ezezaguneko artean gelditutako hitzoi: fonotaktikoa eta geografikoa. Bi hauek gaintitzen ez dituzten hitzak EBZ ondorengoak izan beharko lukete, dela garai modernoagoko fonotaktika erakusten dutelako, dela euskalkiren baten berrikuntzak direlako.

2.1.8.1. Iragazki fonotaktikoa: 3.1.6. atalean aipatu bezala, Mitxelenak AEMrako berreraiki sistema fonologikoaren arabera zilegi izatea litzateke. 33 hitzok gaintitu dute iragazki hau. Badira /p/ hotsa duten hiru forma, *eper*, *espa* eta *ezpain*, baina bik txistukari ondorengo neutralizazioa erakusten dute. *Eper*-eko /p/ hotsa, berriz, konposaketako bigarren osagaien sortua izan liteke. Beraz, utzi egin ditugu forma horiek.

2.1.8.2. Iragazki geografikoa: Indoeuroperaren kasuan, ukipenean ez dauden hiru hizkuntzatan dokumentaturik egotea proposatu izan ohi da. Gure kasuan, ukipenean ez

⁷ Nahiz eta Mitxelenak latineko *tepulus* formarekin lotu, etimologia ezezaguneko artean uztea hobetsi dugu.

⁸ Etimologia **eri-dun* izan daitekeela dirudi baina badaezpada uztea erabaki dugu.

dauden hiru dialektotan dokumentatutako etimologia ezezaguneko hitzak izatea oso zaila denez, ukipenean ez dauden bitan dokumentatuta egotea nahikoa dela deritzogu iragazkia pasatzeko. Esan bezala, helburua ez da ahalik eta hitz gehien nola edo hala kentzea, alderantziz baizik, ahalik eta eskuzabalen izaten saiatu gara lan guztian zehar AErako fosila izan daitekeen forma oro zerrendaren barruan gera dadin.

Horregatik aukeratu dugu Bonaparteren euskalkien sailkapena, Mitxelenak (1964: 15) esan bezala “oso praktikoa eta operatiboa” izateaz gain, Zuazoren (1998) sailkapenean baino euskalki gehiago baita bertan. Gainera, erabaki horrek lana erraztu digu, *OEH* gehiago egokitzen baita printzearen sailkapenera.

Hona hemen iragazki hau gainditu gabeko formak eta beraien kokapen geografikoa⁹: *ehi* (NB, Z), *ekandu* (B), *ekuru* (E, Z), *enas* (G, NG), *enda* (B), *endalar* (G, B), *enpesa* (NB, Z), *enpo* (*egin*) (NG), *enura* (NG), *erreus* (Z), *estolda* (B) eta *eztanda* (G, B).¹⁰

2.1.9. Iragazkiak gainditu dituzten hitzak

Aipatu iragazkiok gainditu ondoren 21 hitz bakarrik gelditu dira fosilak izateko aukera dutenen artean. Egungo 3.300 hitzen %0,63a da hau eta gure lan etimologikoaren abiapuntu izan diren 1105en % 1,9a.

Iragazkiak igaro dituzten etimologia ezezaguneko hitzak ondorengoak dira: *egia*, *egun*, *egur*, *eli*, *eltze*, *eltzun*, *enbor*, *endai*, *endes*, *epel*, *eper*, *ergi*, *errai*, *erratz*, *ertun*, *eskilaso*, *espa*, *etzi*, *ezkaratz*, *ezkel* eta *ezpain*.

2.1.10. Bukerako emaitzak eta grafikoak

Jarraian, lanaren lehen zati honetan egindako analisiaren emaitzak, portzentaiak eta grafikoak aurkezten dira, (2) grafikoan bukaerako datuak eta (3)-n lehen analisisan etimologia ezagunekoaren artean geratutako 289 hitzen sailkapen berria (1105en sailkapen zehatza eta 289ren analisisa eranskinetan dago).

Guztira: 1105

- 1) Maileguak: 655 (%59,27)
- 2) Aldaerak: 106 (%9,59)
- 3) Eratorri / konposatuak: 313 (%28,33). Ezkerralde iluna zuten eratorri/konposatuak kendu ondoren: 306 (%27,69)

⁹ Laburduren esanahia honakoa da: NB Nafarroa Beherea, Z Zuberoa, B Bizkaia, R Erronkari, G Gipuzkoa eta NG Nafarroa Garaia.

¹⁰ Gerora euskalki gehiagotara hedatu den forma da, ziurrenik euskara batuaren eraginez, baina tradizioaren arabera, B eta Gko forma da.


4) Fonosinbolismoak: 5 (%0,45)

5) Etimologia ezezagunekoak: 26 (%2,35). Ezkerralde iluna zuten eratorri/konposatuak batu ondoren: 33 (%2,99)

a) Iragazkiak gainditu dituztenak: 21 (%1,9)

b) Iragazkiak gainditu ez dituztenak: 12 (%1,09)

2. Grafikoa: bigarren sailkapena



Guztira: 289


1) Maileguak: 104

2) Aldaerak: 5

3) Eratorri/konposatuak: 146

4) Fonosinbolismoak: 1

5) Etimologia ezezagunekoak: 33



2.2. Lehen analisiaren ondorioak

Lanaren lehen atal honetan *e*-z hasitako AEko fosilak izateko aukera duten hitzen bila ibili gara, hots, aspaldiko hizkuntz egoera bateko ezaugarriak fosildurik gaur eguneraino gorde dituztenen bila. Hasi aurretik, gaur egungo hitzuntzat eratorri/konposatu gardenak diren hitzak kendu ditugu. Ondoren, gelditu diren 1105ak bost taldetan sailkatu ditugu: mailegu, aldaera, eratorri/konposatu, fonosimbolismo eta etimologia ezezagunekoak. Hau egiterako orduan zuhurtzia guztiz jokatu dugu, hitz bat lehenengo lau taldeetako batean sartzeko pisuzko arrazoirik aurkitzen ez bagenuen bosgarren taldean utziaz. Zuhurtzia berdinarekin, ezker alde iluna zuten formak errekuperatu ditugu eta etimologia ezezagunekoei batu dizkiegu. Antzeko zerbait esan liteke iragazkiez ere, ahalik eta eskuzabalen jokatu da fosila izateko aukera txikiena duen formarik bazter ez zedin.

Gorago (1.3.1.3.) aipatu bezala, bibliografiarekin argitu ezin izan diren etimologia asko Joseba Lakarraren laguntzaz argitu behar izan dira. Hala ere, etimologia ezezaguneko 21 hitzen jatorria azaltzeko gelditu zaigu oraingoz, 33 iragazkiak gainditu ez dituztenak batuz gero. Aipatu hitzok ez lirateke AEko erro EMTren arabera. Espero dugu etorkizuneko lanetan hitz horien etimologiak pixkanaka argitzen joango direla.

Hala ere, lanaren zati honetan AEn ez legokeela *e*-z hasten zen errorik ondoriozta liteke. Sarasolaren hiztegiko 3.300 hitzetatik abiatu eta 21era jaitsi dugu

zerrenda. 21 hitzok portzentaia hain txikia osatzen dutenez (%1,9), pentsatzekoa da noizbait %0 edo hortik hurbil izango zela, portzentai baztergarria dugu, nolana ere.

Dena den, gehienez ere euskara batu zaharrera (EBZ) iritsi gara forma hauen analisiarekin, inolaz ere ez AEMra, eta are gutxiago AEZera. Atzera egin ahal izateko EBZ eta AEM berreraiki beharko lirateke. Beraz, bada oraindik zer egin (ik. Mitxelena 1981, Lakarra 2014).

Orain arte zenbait adituk (Schuchardt, Vennemann, Trask...) hitz hasierako bokalismoaz esan dutenaren inguruan gogoeta berri bat egiteko moduan gara, ordea: batetik, zero hipotesia baztertu liteke, AEk ez bailuke berezko ezaugarri hitz hasierako bokalismo hori.

Bestetik, V-eransketak eta C-erorketak ez dirudite fenomeno honen eragile nagusiak direnik: bagenekien hasieratik eratorpena izan dela azken urteetako e-ugalketaren arrazoi nagusia, 3.300 hitzetatik 2.195 kendu baititugu gainbegiratu batean. Kendutako hitz hauek nahiko modernoak izan behar dute eratorpen-atzizki nabarmenak baitituzte edo hitz konposatu gardenak baitira. Gelditu zaizkigun 1105 hitzek, ordea, orokorrean zaharragoak izateko itxura dute, nahiz eta hauetako asko ere erlatiboki modernoak bide diren. Beraien artean ia %60a maileguak dira. Dirudenez, garai zaharragoko batean, baina erromatarrak etorri ondoren dena den, mailegaketa izan zen hitz hasierako V-ugaltzearen arrazoi nagusia.

Harrigarri bada ere, adituok egindako hipotesi nagusietan ez zen mailegaketaren arrazoi aipatu ere egiten. Betidanik lotu izan dira hitz hasierako herskari ahoskabeak maileguekin baina horko bokalismoa euskal jatorrikoa dela uste izan da denbora luzez. Beraz, hemendik aurrera ikuspegia aldatu beharra dagoela dirudi eta mailegaketak fenomeno honetan izan duen parte kontuan izan. Dena den, mailegaketa hau ez bide zen jazo dena garai berean, horregatik, ondorengo atalean maileguen azterketa sakonago bat egingo dugu.

Eratorki/konposatuek ere (%27) nahiko talde esanguratsua osatzen dute eta baita aldaerek ere (ia %10). Bi talde hauetako zenbait forma latinaren aurretik sortuak direla dirudi, beraz, garai zaharrago hartako hitz hasierako V-ugaltzeak, mailegaketaz gain, beste arrazoi batzuk ere izan zituen. Hurrengo pausoa, beraz, V-ugalketaren arrazoi horiek aurkitzea litzakete eta berauen nolabaiteko kronologia bat eraikitzea.

3. AITZINEUSKARATIK GAUR EGUNERA

3.1. Bigarren analisia

3.1.1. Sarrera

Aurreko atalean *e-z* hasten diren egungo 3.300 hitzetatik AErako fosilak izan daitezkeen bila ibili gara. Zerrenda 1.105era jaitsi da lehen gainbegiratuan, egun ere emankorrak diren atzizkidun eratorriak eta konposatu gardenak kenduta. Lehen sailkapenean, 289 hitz gelditu dira etimologia ezezaguneko artean. Bibliografiaren laguntzaz 33ra jaitsi dugu zerrenda: horietako 21ek bakarrik igaro dituzte iragazkiak eta 12 kanpoan gelditu dira. Azken hauek, iragazkiak gainditu dituztenak baino zalantza handiagoarekin noski, badute zahar izateko aukerarik. Hala ere, 2.2 atalean aipatu bezala, forma hauek ezin dute EBZ baino zaharrago izan. Momentuz atzerago joaterik ez eta, aurrera egin behar. Beraz, hain kopuru urritik gaur egungo 3.300 hitzetara nola iritsi den aztertzeari ekingo diogu.


Azterketa kronologikoki egitea iruditu zaigu egokien; horregatik, *e-* aurrizkia duten hitzak aztertu ditugu lehenik, gero hasperen erorketa islatzen duten formak, ondoren maileguak, eta azkenik, hauen eratorriak.

3.1.2. Aldaeren kentzea

Aldaerak baztertu egin ditugu lanaren zati honetan, lexema bera bi aldiz kontatzea izango bailitzateke hori. Beraz, hona hemen lanaren abiapuntu izan diren hitzen sailkapen, kopuru, portzentaia eta grafiko berriak.

Guztira: 999

1. Maileguak: 655 (%65,57)
2. Eratorri/konposatuak: 306 (%30,63)
3. Fonosinbolismoak: 5 (%0,5)
4. Etimologia ezezagunekoak: 33 (%3,3)




3.1.3. Eratorri/konposatuen sailkapena

Lanean hasteko, bost taldetan sailkatu ditugu eratorri/konposatuak: *e-* aurrizkia dutenak, hitz hasieran hasperen galera izan dutenak, maileguen eratorriak, neologismoak eta bestelakoak¹¹. Hona hemen ateratako emaitzak:

Erorri/konposatuak: Guztira: 306

1. *e-* aurrizkia: 130 (eratorrien %42,48, guztien % 13,01)
2. *h-* galera: 88 (eratorrien %28,76, guztien %8,81))
3. Maileguen eratorriak: 28 (eratorrien %9,15, guztien 2,80)
4. Neologismoak: 18 (eratorrien %5,88, guztien % 1,8)
5. Bestelakoak: 42 (eratorrien 13,73, guztien 4,2)

¹¹ Talde honetan etimologia ezezagunekoan artean utzitako beste formen gainean eratorriak, *egurats*, *eltzeitsu...* partikula gramatikalak, *edo*, *ei*, *eta*, *ez...* C- erorketa izan dutenak (**der-der > eder, bere > ere...*), etab. sartu dira.



3.1.4. e-aurrizkidun hitzak

Badirudi *e-aurrizkiak* izan duela pisurik hitz hasierako V-ugalketan, eratorrien %42a osatzen dute eta analisi honen abiapuntuko 999en %13a. Gainera, etimologia ezezagunekoaren artean utzi ditugun *egun* eta *egur* bezalakoetan ere *e-aurrizki* bat den susmo handia dugu. Hori egia balitz, 5. taldeko *egurats*, *eguzki* eta beste forma asko ere oraingo honetan sartu beharko genituzke.

Guzti honekin, ondoriozta liteke hitz hasierako V-ugalketak beste fase indartsu bat izan zuela mailegu olatuak etorri baino askoz lehenago, aurrizkitzearen bitartez bi silabako hitzak agertzen hasi ziren garaian, hau da, AEZetik AEMrako bidean.

3.1.5. h-galera duten hitzak

Oso talde esanguratsua osatzen dute hauek: *heren-suge* > *ersuge*, **hez-dul* > *eztul*, **her-tz-gu* > *esku*... Zehazki 88 formatan identifikatu ahal izan dugu hitz hasierako hasperenaren galera, hau da, abiapuntuko 999 hitzen %8,81ean. Hau Martineten hipotesiaren aldeko datu bat izan liteke, beharbada; hala ere, ezin da frogatu hasperen guzti horiek herskari batetik datozenik, Mitxelenak (1977) esan bezala jatorrizkoak ere izan baitaitezke.

3.1.6. Maileguen analisia

Laugarren grafikoak erakusten duen bezala, mailegaketa izan da hitz hasierako bokalismoaren eragile nagusi (%65), garai oso modernoko eratorpena kontuan izan gabe, noski. Beraz, ondorengo lerroetan maileguen analisia azalduko dugu.

3.1.6.1. Maileguen lagina: Gorago aipatu bezala (1.3.2.3.), maileguen kopurua handiegi zen guztiak aztertu ahal izateko. 653 maileguren jatorria eta kronologia aztertzeak beste GrAL batetarako lana emango luke gutxienez. Badakigu ideala hori izango zela, baina berauen %20a aztertzeak lehenengo hurbilketa baterako nahiko emaitza fidagarriak eman ditzakeelakoan gaude. Lagina prestatzerako orduan bost mailegutatik bat sartu dugu aztergai, horrela, 655 mailegutatik 131rekin geldituaz.

3.1.6.2. Baztertutako maileguak: Jarraian datozen formak baztertu ditugu ikerketa honetarako esanguratsu ez direlakoan, dela oso modernoak, dela eboluzio desberdin bat izan duten elizaren esparruko hitzak direlako¹². 42 hitz baztertu ditugu, beraz; gure kalkuluen arabera, 999 hitzen %21a horrelako mailegu modernoek osatuko lukete. Hona hemen bazterturiko hitzak:

Ebano, edelweiss, edukazio, egoista, ekinozio, eklipse, ekuazio, elektrodo, elipse, emisor, endogeno, entzefalo, epentesi, epigrama, epistola, ergatibo, erlazionatu, erosio, erradiadore, erradiografia, erredakzio, erreperitorio, erretolika, erribonukleiko, erromaniko, eskifaia, esoteriko, espektro, espiral, esplotatu, espresio, estalagmita, estetika, estimulu, estrato, estreptokoko, estuario, eszena, etanol, etika, eukaristia eta existitu.

3.1.6.3. *e*-protetikoa: Irakurleak nabarituko du bazterturiko hitzen artean *r*-aurreko *e*-protetikoaren portzentaia nahiko altua dela, zehazki, azterturiko 131 maileguen %35a osatzen dutela. Honek datu garrantzitsu bat ematen digu hitz hasierako *e*-ren ugaltzeaz, maileguen %35a *e*-protetikoa izateak lanaren abiapuntu genituen 999 hitzetatik %22,95a dela esan nahi baitu. Horra hor, beraz, *V*-ugaltzea eragin duen beste faktoreetako bat.

Gainera, nahiz eta hain ugari ez izan, *A*-n ere *a*-protetikoa aurkitzea espero izatekoa da, *arratoi*, *arraza* eta abar bezalako formetan. Zehazki, *arr*-hasitako hitzek 7,5 orri hartzen dituzte Sarasolaren hiztegian eta *err*-hasitakoek 14, ia bi aldiz gehiago.

¹² Gorago esan bezala, hitz hauek ez dira jatorritik zuzenean euskarara sartuak eta, beraz, ez dira honen bilakabide osoaren lekuko.

Badakigu hauek denak ez direla *a-* eta *e-* protetikoak dituzten hitzak izango, baina ideia bat egiteko bederen balioko du.

3.1.6.4. Latineko maileguak: Laginari 3.1.3.1 atalean esandako 42 mailegu modernoak kenduta, 89 gelditu zaizkigu aztertzeko. Hauen artean, latin garaiko forma ziurtzat bi baino ez ditugu hartu, *errot*a eta *ezkon*, nahiz eta beste zenbaitek ere aukerak izan. Portzentaia oso baxua osatzen dute, maileguen %1,53a eta 999 hitzen %1a, hamar bat hitz guztira.

3.1.6.5. Gaztelerako maileguak: Nahiko ziur gazteleratik hartuak dira lagineko 22 hitz, maileguen %16,8a eta abiapuntuko hitzen %11a, 110 bat hitz. Beste forma askok ere, gazteleratik hartutakoaren itxura duen arren, enparatuko erromantze batetik mailegatuak izateko aukera ere badute, beraz, aparteko talde bat egin behar izan dugu jatorri aukera anitzeko hitzekin¹³. Horrela bada, nahiko ziurrak diruditenak bakarrik sartu ditugu gaztelerazkoen multzoan: *enjendratu*, *enkomendatu*, *enparantza*, *enteratu*, *entrada*, *era*, *erloju*, *errama*, *errefreskatu*, *erregela*, *erregular*, *errejimendu*, *errekomentazio*, *erremate*, *errezatu*, *errezibo*, *errieta*, *erromero*, *esentzia*, *eskojitu*, *eskopeta*¹⁴ eta *esportzu*.

3.1.6.6. Gaskoi-biarneseko maileguak: Aztertuetarik 14k gaskoi edo biarnes dirudite, ezin izan dugu bietatik zein diren zehaztu. Hona aipatu hitzok: *ele*, *elemenia*, *endrezu*, *enpeltatu*, *enplegatu*, *errebokatu*, *erredola*, *erreka*, *errekesta*, *errendatu*, *eskarnio*, *establimendu*, *estoka* eta *estonatu*.

Hemen ere arazo berdinarekin topatu gara. Beste hitz askok, latin, gaztelera, edo frantsesekoak ere izateko aukera dute esandako erromantze hauetaz gain eta zalantzazkoen taldean sartu behar izan ditugu. Beraz, nahiko ziur gaskoi-biarnesetik mailegatutako diruditenek maileguen %10,7a osatzen dute, lanaren abiapuntuko 999 hitzen %7a, 70 inguru.

3.1.6.7. Frantseseko maileguak: Hizkuntza honetatik hartuak dirudite *exalota*, *engaiatu*, *entreprenur*, *erreinu* eta *ezantza* formek, beraz, 5 guztira, maileguen %3,8a eta abiapuntuko hitzen %2,5a, 25 bat. Hala ere, frantsesetik hartuak izateko aukera zuten forma gehiago bada, baina goian aipatu bezala zalantzazkoen taldean sartu ditugu.

¹³ Hauetako batzuek, geografia eta kronologia dela eta, jatorri batean edo bestean sailkatu ahal ziren apika baina badaezpada talde honetan utzi ditugu.


¹⁴ Forma hau italieratik dator baina italiera > gaztelera > euskara bidea egin zuela uste dugu.

3.1.6.8. Beste erromantzetako maileguak: Nafar erromantzetik hartua bide da *erreteila*, eta katalanetik *estropada*. Kopuru hain apala izanik, ez du merezi hauen inguruko azterketa berezirik egitea.

3.1.6.9. Zalantzazko maileguak: Esan bezala, zenbait hitzen jatorri zehatza identifikatzea ezinezkoa suertatu zaigu eta talde berezi bat egin dugu haiekin. Forma hauek eboluzio berdina edo antzekoa izan dute euskaran zein inguruko erromantzeetan, horregatik ezin izan dugu beraien jatorria identifikatu. Zalantzazkoen talde horretan 44 geratu zaizkigu, hauetako 29 erromantzeren batetik hartuak direla uste dugu eta 15 erromantzetik nahiz latinetik hartu ahal izan dira.

3.1.6.10. Maileguen grafikoa:

6. Grafikoa: maileguen sailkapena



3.1.6.11. Grafikoaaren analisisa: Ikusten denez, maileguen bidez sortutako hitz hasierako V-ugalketa erromantze garaikoa izan da batez ere, jatorria zehaztea lortu dugun maileguei zalantzazko gehienak batu behar baitzaizkie. Gainera, garai modernoko gehienak ere erromantzetatik hartuak dira. Beraz, argi dago maileguen eragindako hitz hasierako e-ren ugalketa erromantzeen eraginez izan dela, baina bi garai desberdinetan.

Badirudi gazteleratik hartuak izan direla mailegatutako hitz gehienak, %16,8a, gainera, jatorria identifikatu ezin izan diegun zenbait ere hizkuntza honetatik hartuak

bide dira. Hortaz, gaztelerako maileguk eragindako hitz hasierako *e*- horiek analisiaren abiapuntuko 999 hitzen %11a baino gehiago osatzen dute.

Gaskoiak eta biarnesak ere uste genuena baino pisu handiagoa izan dute V-ugalketa horretan. Maileguk %10,68a identifikatzea lortu dugu, 999 hitzen %7a.

Frantsesak, aldiz, gaskoi-biarnesak baino eragin frango txikiagoa izan du hitz hasierako V-ugalketan. Kontuan izan frantsesaren eragina Iparraldean XVII-XVIII mendetik aurrerakoa izan dela batez ere.

Zehazki identifikatzerik lortu ez dugun maileguk jatorria aurkitzeak ikerketaren emaitzak neurri batean alda ditzakeelakoan gaude, baina aurkezturiko ondoriook ideia bat egiteko bederen balioko dutela uste dugu. Bestalde, interesgarria litzateke hizkuntza bakoitzetik mailegu bakoitza noiz hartu den aztertzea baina hori beste lan baterako gaia dateke.


3.1.7. Maileguk eratorriak

Hitz hasierako bokalismoan maileguk nagusitasuna aurreko atalean ikusi duguna baino are handiagoa da. 655 maileguk hauen gainean eratorritako 28 hitz batuz gero, 683 lirateke, abiapuntuko 999 hitzen % 68,37a.


3.1.8. e- guztien jatorrien grafikoak

